



ORIENTAZIO ARIKETA – BIDEA ORIENTAZIO TALDEA

Ondoz ondoko 13. urtez Eguberrietarako orientazio ariketa hau eskaintzen dizuegu.

Gabonetako Jaiotza xume bat jarri dut maparen hiru puntuetako batean. Zeinetan?

Jakin nahi izanez gero hurbil zaitez Pagasarri mendira (LARRASKITURA) eta maparen 3 puntuak bisitatu.

NOLA HELDU LARRASKITURA? Zabalburu plazatik oinez edo Larraskitura igotzen diren Bilbobusetan.

Puntuetan zinta identifikatzaile bat egongo da, eta bertan EZ edo BELEN hitza idatzita. Jaiotzaren puntuan kutxatxo-postontzi bat egongo da, papertxo edo txartel bat utzi ahal izateko zuen izena eta datarekin, nortzuk eta noiz egon zareten ikus dezagun. Eskerrik asko.

NOIZTIK ETA NOIZ ARTE? 2017ko abenduaren 11tik 2018ko otsailaren bukaera arte.

MAPA: www.cobidea.com webgunetik koloreko mapa jaitsi dezakezue. Zuribeltz kopiak eskuragarri egongo dira ere Miribillan Bizkaiko Mendizale Federazioan astearte, asteazken eta ostegunetan arratsaldeko 7etatik eta 9etara edo eta beste edozein egun eta ordutan 6. solairuko iragarki-taulan.